

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

data: 2021/11/16

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Jardiñetako 7 zenbakiko bizilagun batek salatu du Institutuko eta Aldatzeko ikasle batzuk 7, 9 eta 11 zenbakietako pegoretara joaten direla atsedendietan eta dena zikintzen dutela.	Halako intzidentziak gertatzen direnean, komeni da Udaltzaingoari jakinaraztea, gertatzen ari diren unean bertan.
Zerbitzuak	Herritar batek eskatu du baranda bat jartzea Centro Montañés izeneko lokalaren pareko eskaileretan, 14 zenbakiaren ondoan.	Baranda bat jarriko da, bihurgunean, Casa Cantabria etxearen aurrean eta espaloian kaltetuta dagoena kenduko da.
Zerbitzuak	Galdetu du zergatik ez duen funtzionatzen Jardiñetako igogailuak asteburuetan.	Igogailuaren plakan arazo bat egon zen, eta, aldatu zenean, konpondu egin zen arazoa.
Obrak	Bizilagun batek salatu du Aldatzeko igogailuak ez diela zerbitzurik ematen Jardiñetako bizilagunei.	Bere kokapena dela-eta, Jardiñeta kaleari zerbitzua ematen dio zerbitzua.
Udaltzaingoa	Kexu da jende askok ez dituelako errespetatzen ez zebra-bideak ez STOP seinaleak.	Halako arau-hausteak ikusten direnean, bidezkoa den salaketa formalizatzen da.
Obrak	Eskatu du igogailu bat eraikitzea Jardiñeta 33 eta 35 zenbakien artean.	Proiektua idatzita dago.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

data: 2021/11/16

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Kexu da Aldatzetik jaisten diren ibilgailuak oso abiada handian doazelako.	<p>Azken urteotan Udala oso kezkatuta dago ibilgailuen gehiegizko abiaduragatik eta oinezkoen segurtasunagatik.</p> <p>Horren haritik, hainbat neurri hartu dira, hala nola gehieneko abiadura-muga 30 km/h-koa izatea erdigunean eta 20 km/h-koa koexistentzia-guneko kaleetan.</p> <p>Beste neurri batzuk dira oinezkoen pasabideak goratzea eta gaur egun beste soluzio bat aztertzen ari dira: abiadura kontrolatzeko radarrak jartzea abiadura gainditzen dela uste den tokietan.</p>
Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Salatu dute txakur-kaka asko daudela Jardiñeta 33 zenbakirako igoeran.	<p>Txakur baten jabeak bere animalia-aren kaka ez duela jasotzen ikusten denean, bidezkoa den salaketa egiten da.</p> <p>Azken hilabeteetan, zaintzako kanpaina espezifikokoak egiten ari dira herriko hainbat tokitan halako intzidentziak saihesteko.</p>
Udaltzaingoa	Bizilagun batek eskatu du neurriak hartzeko delinkuentziaren aurrean.	<p>Udalak oso serio hartzen du delinkuentziaren gaia. Hura murrizteko, Udaltzaingoa bilerak egiten ditu Ertzaintzarekin, jasotzen diren datuak aztertuz, koordinatuz eta delinkuentzia murrizteko neurriak hartuz</p>

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

data: 2021/11/16

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Salatu dute Bidebarrieta inguruan arratoien kopurua handitu delako.	Abisua pasatu zitzaion herrian desratizazioak egiten dituen arduradunari kexa kontuan har zezan.
Udaltzaingoa	Bittor Sarasqueta kaleko bizilagun bat kexu da Eibarko Musika Bandak zarata handia ateratzen duelako, leioa zabalik jotzen baitu. Hori dela-eta, eskatu du esateko leioak ixteko edo beste lokal batera joateko.	Hitz egin da musika-bandarekin gai honetaz, Eta jakinarazi zaie zein den arazoa eta horren inguruan jasotako kexak.
Hirigintza	Jakin nahi dute ea noiz erretiratu behar den Bittor Sarasqueta epaitegi zaharraren eraikinean dagoen aldamioa.	Epaitegi zaharrean birgaitze-obrak egiten ari dira.
Hirigintza	Salatu dute Arragueta kaleko egoera penagarria dela.	Eraispena laster egingo dela aurreikusten da: jabeek Eraispen-lizentzia dute, baina obra hasteko beste baimen batzuk behar dira.
Obrak	Muzategi 7 zenbakiko bizilagun batek salatu du ur zikina ateratzen dela Aldatzera igotzen diren eskaileretatik.	Gai hau Gipuzkoako Urari helarazi zitzaion, arazo honi Dagokion konponbidea eman diezaion.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

data: 2021/11/16

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Kexu da Muzategi 1, 3, 5 eta 7 zenbakietako etxabeetan dagoen zikinkeriagatik.	Toki hau eskuz eskobatzen da asteko 7 egunetan. Gune horretan ostiral batzuetan eta ia larunbatero botiloiak egiten dira, eta Mankomunitateak inguru hori goizeko 10:00etatik 11:00etara garbitzen du. Ibilbide zirkularrak egiten ditu, eta lehenik langilea irteten den lokaletik hurbilen dauden botiloiak garbitzen ditu.
Hirigintza	Herritar bat, Aldatzeko bizilagunen izenean, eskatu du neurriak hartzeko Pitxargain eraikinean. Dioenez, aurri-egoeran dago.	Jabetzari eraikinean esku-hartzeko eskatu zaio.
Alkatetza	Kexu da Errebal Plazan egindako gastuei buruzko argitaratutako datuak ez direlako egiazkoak.	Datuak zuzenak dira. Datu guztiek dute beren euskarri teknikoa eta udal-langileen baimena eta abala dute. Hala ere, kexa hau aurkezten duen pertsonak egiaztatu ahal badu datu hauek ez direla egiazkoak, eskatzen diogu guri jakinarazteko, datuak alderatu eta erantzuteko.
Alkatetza	Herritar batek galdetu du ea noiz egongo diren martxan Errebal Plazia eraikinaren erabilera eta zerbitzu guztiak.	Martxan daude dagoeneko. Horren haritik, azpimarratu Behar da Errebalgo proiektua, Osoko Bilkuran aho batez onartua, plaza publiko estali baten diseinua jasotzen zuen, non, besteak beste, kultur ekitaldiak egingo ziren, eta, horregatik, gaur egun, hainbat lan egiten ari dira ikus-entzunezkoen sistema hobetzeko, publikoari ahalik eta esperientzia onena eskaintze aldera.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

data: 2021/11/16

Saila	Laburpena	
Obrak	Neurriak hartzeko eskatu du Errebal Plazia eraikinaren estalkia puzteko sistemak eta ke-erazgailuak ateratzen duten zarataren aurrean.	Zarataren arazoarekin amaitu egin zen zegozkion ajusteari. Egin ostean.
Obrak	Galdetu du ea noiz erretiratu behar den Errebal Plaza inguruan dagoen aparatua (lona berde batekin estalita dagoena).	Azaroan, hornidura elektrikoko kontagailuen altak izapidetu ondoren, behin-behineko koadroa kendu zen.
Udaltzaingoa	Informazioa eskatu du ibi edo pasabideen Ordenantza aldatzeko prozesuari buruz.	Ordenantza aldatzea aztertzen ari gara.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du Txomoko parkean zarata handia dagoela, parkearen egituraren ondorioz, eta oso zikin dagoela.	Abisuak jasotzen direnean edo ikusten denean gazteak eragozpenak eragiten ari direla, kexak jakinarazten zaizkie eta zaratarik ez egiteko eskatzen zaie. Ez badute jarrera aldatzen, handik alde egiteko agintzen zaie.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

data: 2021/11/16

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

data: 2021/11/16

Saila

Laburpena